

ZIGARRETA ELEKTRONIKOA

IDEIA OKERRAK

Lurrinak besterik
ez da...

Ez da hori bakarrik.

Zaporeak produktu kimikoetatik lortzen dira.

Zapore batzuk aho bidez kontsumitzeko seguruak dira, baina ez arnasteko. Produktu kimiko aromatizatzaile horiek arnasteak kalte egin diezaieke birikei.

ZIGARRETA ELEKTRONIKOA

IDEIA OKERRAK

Ur-lurruna
besterik ez da...

Ez, ez da.

Lurruntzeak substantzia kimiko kaltegarrien eraginpean jar ditzake birrikak, hala nola, formaldehidoa, azetaldehidoa eta akroleina. Substantzia horiek biriketako kalte itzulezinak eragiten dituzte.

ZIGARRETA ELEKTRONIKOA

IDEIA OKERRAK

Ez naiz zigarretaren
mendera eroriko...

Nikotinak mendekotasuna sortzen du.

Nikotina lurruntzean, 10 segundotan iristen da garunera.

Nerabe baten garuna oraindik garatzen ari da, eta, ondorioz, nikotinarekiko eta mendekotasunarekiko zaurgarriagoa da.

ZIGARRETA ELEKTRONIKOA

IDEIA OKERRAK

Nikotinak ez dit
hainbesteko
kalterik egiten...

Nikotina kaltegarria da.

Nerabezaroan nikotinaren eraginpean egonez gero, garunaren garapen normala alda daiteke, eta ondorio iraunkorrak eragin ditzake; besteak beste, inpulsiotasuna areagotzea eta gogo-aldartearen nahasmenduak.

ZIGARRETA ELEKTRONIKOA

IDEIA OKERRAK

Lurruntzeak
lasaitu egiten
nau...

Ez du estresa murrizten.

Zigarro elektronikoez ez dute estresa arintzen, eta ez dute inolako onurarik sortzen.

Nikotinarekiko mendekotasunak estres-sentsazioa okerrago egingo dezake, abstinentziaren sintomek estresaren sintomen antzekoak baitira.

ZIGARRETA ELEKTRONIKOA

IDEIA OKERRAK

Beste tabako-
produktu batzuk
kaltegarriagoak dira...

**Tabako-produktu guztiak kaltegarriak dira osasunerako,
eta mendekotasuna izateko arriskua handiagoa da gazteen
artean.**